



**2016KO IRAILAREN 8KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko irailaren zortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2016ko uztailaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 62 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA MILA SEIEHUN ETA BERROGEI-TA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (171.654,47 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 16-11-05 zbk.dun esped.: zerbitzua murriztea 2016ko abuztuaren 29tik aurrera astean 12 orduetatik 9 ordura, onuradunak ala eskatu duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35a izango da.
- 16-11-07 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2016ko irailetik aurrera, astelehene-tik larunbatera egunero 3 ordu etxeko garbiketan eta laguntza pertsonalean laguntze-ko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 16-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 € eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematea uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



- 16-01-012 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 € eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematea abuztutik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-013 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 € eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematea irailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-008 zbk.dun esped.: larrialdietarako laguntzaren titulartasuna bere emaztearen izenera aldatzea, elkarbizitza unitatean aldaketak egon direlako.

IV.- JOXEMIEL BARANDIARAN KIROLDEGIAN HANDITZEAREN ERABILERA ANITZEKO GELAREN, ZIKLO INDOOR GELAREN ETA GIMNASIOAREN KLIMATIZAZIOARI DAGOKION INSTALAZIOA EGITEKO ETA MARTXAN JARTZEKO OBRA LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegian handitzearen erabilera anitzeko gelaren, ziklo indoor gelaren eta gimnasioaren klimatizazioari dagokion instalazioa egiteko eta martxan jartzeko obra lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak, 1. obra egiaztagiria luzatu du. Obra egiaztagiria hau HAMASEI MILA ETA BOSTEHUN EUROKOA (16.500 €) da. Lanak ICELAN Instalaciones y Sistemas S.L. ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, aho batez, berau onartzea erabakitzen du.

V.- 6 H.J.A. -ITURGAITZAGA-KO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN ALDAKETA: LAZKAOMENDIRA JOATEKO GI-2120 ERREPIDEAREN AZPITIK LURRAZPIKO PASABIDE BAT EGOKITZEA.-

Udal honek, 2016ko uztailaren 8an emandako Alkatetzaren Ebazpen bidez, Injelan, S.L.k idatzitako "Lazkaon GI2120 errepidearen azpitik lurrazpiko pasabidearen exekuzio proiektua" Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6.H.J.A.ko -Iturgaitzaga-ko Urbanizazio Proiektuaren aldaketa gisa hasierako izaeraz onartzea ebatzi zuen.

Proiektua jendaurreko erakustaldian egon da hogeit eguneko denboraldian, Udaltxeko iragarki taulan iragarkia ezarri, eta 2016ko uztailaren 14ko 134 zbk.dun G.A.O.an eta 2016ko uztailaren 19ko Berria eta El Diario Vasco egunkarietan iragarkiak argitaratuz.

Urbanizazio Proiektua jendaurrean erakusgai egon den 20 eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak aipatu proiektuaren inguruan emandako aldeko txostena jasotzen da baita ere espedientean.

Aran zinegotziak (EH Bildu) proiektu honen aurka bozkatuko dutela esaten du.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko hiru botu (EAJ) eta aurka bi botoz, Lazkaomendira joateko Lazkaon GI2120 errepidearen azpitik lurrazpiko pasabidea egitean datzan Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6.H.J.A.ko -Iturgaitzaga- Urbanizazio Proiektuaren aldaketa, behin-betikoz onartzea.



VI.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZ SUTEEN AURKAKO BABES ETA SEGURTASUNEN SISTEMAK MANTENTZEKO KONTRATAZIOARI ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, suteen aurkako babes eta segurtasuneko sistemak mantentzea kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez suteen aurkako babes eta segurtasuneko sistemak mantentzea kontratatzeke kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeke konpromisoa hartzea.

VII.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZ FUNTZIO ANITZEKO EKIPOEN HORNIKUNTZA ETA MANTENTZEAREN KONTRATAZIOARI ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, funtzio anitzeko ekipoen hornikuntza eta mantentzea kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez funtzio anitzeko ekipoen hornikuntza eta mantentzea kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeke konpromisoa hartzea.



VIII.- EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Euskara eta Hezkuntza Sektorea Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako diru laguntza hau ematea erabaki du:

Goierriko Euskal Eskolari "Gerriko Ikerlan Beka" ikerketa bekarako diru-laguntza.-

Goierriko Ikerlan Bekaren 2016ko sariketa gastuei aurre egiteko BI MILA ETA BOS-TEHUN EURO (2.500 €)ko lehen zatiaren diru laguntza onartzea."

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du bi gaien inguruko hausnarketa jarri nahi duela mahai gainean. Bata, Oin Arin dantza taldearen 50. urteurrena dela eta, udal bezala aitortza egin beharko litzaioke iruditzen zaiola eta horren inguruan udalak egin dezakeena irekita uzten duela egon daitezkeen ideietara. Beste alde batetik, eta Tokiko Gobernu Batzordearen egite al-dizkotasun, egun eta orduaren egokitasunaren inguruan, hau ere irekita gelditzen dela, orain bezala jarraitu ala aldaketaren bat sartu.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen du-dalarik.

